

PILLIPE-REN ATERAKAYAK

PILLIPE ta Nikolaš, bi nekazari goyarriar ziran, bata baño bestia zorrotzagua, ta nola bata ta nola bestia edozeiñi beren aterakayakin abua ichi ta mututurik utsi, edo abua zabaldubaz farrez lertzen usteko banen banekuak.

Bañan biyetan batek izan biar zuben bestiak baño geyago, ta biyetan lenengo Pillipe zan. ¡A zer mutilla eche utzian apariyaren orde z jolaz atsegiñ eta parragarriak sortzeko!

Bein batian erabaki zuten Pillipe ta Nikolaš-ek, Donostira jua etorri bat egitia; ta lenbizi orduterdiko bidian mendian ibilliaz, sartu ziran burni bideko gurdi trakatz batian, ta beste orduterdi barru irichi ziran Donostira edozein jaun aundi bezin lasai ta arro.

Ango oju, karraši, ta zalapartak etziyoten bururik asko naztu, ta denagatik parra egiañaz, erriko aldapa biziyan bezin sendo jua ziran emengo zubi, ta kale zabal, apañetan.

Ayek ikusterakuan emengo zenbait šankamek usteko zuten lotsaturik igesi bezela zijuaztela. Etzuten chiništuko beragatik parra naikua egiañaz alai ta lasai zebiltzala.

Ibilliyaz, ibilliyaz, irichi ziran eche baten aurrera, ta atietan pillaka zeuden kucha edo kofre mota guzietakuak.

Bidera atera zitzayoten gauza ayen jabia, ta erdiya euskeraz eta beste erdiya erderaz, eraso ziyen esanaz erosteko *kofre* ayetako bat:

—Bañan ¿zertako degu guk *kofria*?, galdetu ziyon Pillipe-k.

—Erropak gordetzeko.

—Eta or erropak gorde ta ¿larru gorriyan jua biar aldegu kalei kale?

Etzion itzik geyago esan saltzalliak, eta beren bideari jarraitubaz

irichi ziran bi basarritarrak ichaz-ondoko ibil-leku, Koncha deitzen dan gain gañekora.

Uda zan; elchua bezela zebillen jendia, bai ibil lekuan, bai ondartzan, baita ere ichasuan. Zelayetan asa buruak ikusten diran bezela alase ageri ziran ichaz bastarran buru aundi ta chiki. Aundiyak geyago chikiyak baño.

Aniturik zeuden ainbeste jende ikusiyaz, eta inguratu zitzayen zumayar gazte bat. Uraše gertatu zan Pillipe-ren antzeko aterakayak zitubena. Arrek botatzen zituben gezurrak, iruski aldekoa izan bazan ere etzituben aundiyaguak botako.

Ikusi situbenian Pillipe ta Nikolaš ain arritubak alako jende pilla ikusten zutelako, esan ziyen zumayarrak:

—Au ez da ezer ere Zumaya-n ikusten danerako. An, an, agertzen da jendia asko ta ugari.

—¿Emen baño geyago?

—Milla bider geyago-re.

—Ezin liteke.

—Juan dan urtian Zumaya-n gelditu ziran askuak, baña askuak bañu-rik artugabe..... ichasuan kabitzen etziralako.

—Adizkidia, orain bota dezuna bai ez dala kabituko ez ichasuan ta ez legorrian.

Eta ori esanaz, eta par puskabat egiñaz alde egin zuten leku artatik, sartu ziran kale mutur batian ta atzeratu biarrian arkitu ziran bada erriko-gurdi edo tranbia oyetako bat zijuan chimištak egiten.

—Mutillak, oyi dek bizi juatia, esan zuben Nikolas-ek, aizia bera baño lazterrago ziak.

—Eta ori, erantzun ziyon Pillipe-k, goitik lotuta dagolarik. Loku-ra ori autziko balu ¿zeñek asmatu orrek eramango luken abiyadura.

A. DARRA

